

Egun on:

Arabako Foru Aldundiak, Kultura eta Kirol Sailaren bidez eta Growing in Values (Gesto Deportivo) enpresarekin lankidetzan, abian jarri du **tresnatzat kirola erabiliz balioak sustatu eta barneratzeko proiektu berri bat. Arabako ikastetxeentzat eta kirol klubentzat da proposamena.**

Zehazki, **lineako plataforma batean** proposatzen dira balioak sustatzeko eta kontrabaliioei aurrea hartzeko jarduerak. **Jarduerak Arabako Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleentzat eta kirol klubetako haur eta kadete kategorietako kirolari gazteentzat** dira, eta **urritik 2022ko maiatzera bitartean egingo dira. Irakasleentzako gida baten bitartez, zenbait jarduera aurkeztuko dira (galdetegia, kahoot tresna, dilema moralak, kirol legerari buruzko antzerkia eta abar), zeinen bidez balioak sustatu nahi baitira, hezkuntzarako tresnatzat kirola erabiliz.** Beraz, baliabide ezin hobea da hezitzaile gisa zuen ikasleekin eta kirolari gazteekin erabil dezazuen.

Izena eman nahi duten ikastetxe, Gorputz Hezkuntzako irakasle, tutore, bestelako irakasle, kirol klub, entrenatzaile, koordinatzaile zein bestelakoek **2021eko azaroaren 1era arteko epea** izango dute.

Horretarako, **inprimakia** bete behar duzue, esteka honetan klik eginda:

<https://docs.google.com/forms/d/1cVAIBZL5XweamF8TXsMoWZBA-B0v0qOKcNxtSQAd1KM/edit>

Ez dago izena eman dezaketenen gehieneko mugarik ikastetxe edo kirol klub bakoitzeko. Izena emango dutenei dei egingo zaie **lineako bilera baterako, zeina zoom plataformaren bidez egingo baita 2021eko azaroaren 4an, 18:00etan.** Bileraren helburua da azaltzea nola dabilen plataforma eta zein kronologia izango duten jarduerak, eta argitzea erabiltzaile izango zareten aldetik izan ditzakezuen zalantzak. Gainera, bilera horretan, “*Promoción de Valores en el Deporte en Edad Escolar*” plataformaren erabilerari buruzko eskuliburua bidaliko zaie izena eman duten guztiei.

Azkenik, Gesto Deportivo elkarteak erabiltzaile izena eta pasahitza emango dizkio parte hartzen duen erakunde bakoitzari, plataformara sartu ahal izateko. Hartara, parte hartzen duen erakunde bakoitzaren jarraipena egingo da.

Izena emango dutenek konpromisoa hartzen dute baliabide eta jarduera hauek egiteko edo haietan parte hartzeko:

- 1.- Lineako plataforma eta erabilera eskuliburua.
- 2.- Plataformaren zoom bidezko aurkezpena.
- 3.- Amaierako proiektua egitea.

Adeitasunez, agur.